

Mozoloaren bidea

Ainara Azpiazu Aduriz “AXPI”

(Hernani, 1980)

Soziologia ikasketak egin ondoren, soziolinguistika lanak egin zituen, baina “irudiekin jolasteko” gogoari jarraituta Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon. Ikasketa hauek Italian sakondu zituen: 2012-2013. ikasturtean “ARS IN FABULA. MASTER IN ILLUSTRAZIONE PER L’EDITORIA” masterra burututa, Maceratan.

Besteak beste, komiki-tirak (*Hernaniko Kronika*, *Berria*, *GAUR8*, *Irrien Lagunak*, *H28*) egiten ditu eta zenbait liburu ere ilustratu ditu: *Nahla*, (Ibaizabal, 2015) *Betaurrekoak Hozkailuan* (Ibaizabal, 2016) eta *Mozoloaren bidea* (*Dobera Euskara Elkartea*, 2016), *Gaua Anderea* (Ibaizabal, 2017), *Sekretuen mila zapoak* (Ibaizabal, 2018), *Nire amama ni bezalakoa da, ume bat* (*Latopera*, 2019). Etxepare *saria* eskuratu zuen 2017an *Arraroa* album ilustratuaren testuaren egile bezala eta *Tupust!* kolektiboaren partaide da. Txalapartak kaleratutako izen bereko komiki-liburuan kolaboratu du bederatzi orrialdeko lan batekin.

Horrez gain, erakunde publikoetako Berdintasun eta Euskara sailetarako ilustrazio-lanak ere egin ditu, foileto eta karteletan doazenak, eta komiki tailerrak ematen ditu Hernanin duen lokalean.

Muralak egitea gustoko du eta joan den urtean Hernaniko Udalak emandako I. Kale Arte Bekaren onuradun izanik, Hernaniko Ezkiagako frontoi atzean murala burutu zuen.

Hemen dauden lan hauek *Mozoloaren bidea* liburuko ilustrazioak dira. Ipuin honetan bidaia bat egiten duen pertsonaia baten kontakizuna egiten da, pertsonaia ezberdinekin topatu eta paisaia aberatsetan zehar murgiltzen dena. Ipuina bera Armeniako kulturaren oso ezaguna den testu bat da, ikasgai bat aditzera eman nahi duena.

Erakusketa honetarako aproposak ikusi ditu irudi hauek, kontakizuna jakin gabe bai paisaiak zein pertsonaiak istorio berriak asmatzeko oinarri onak izan daitezkeela iruditu zaiolako, iruditeria piztu eta zabaldu dezaketean irudiak izanik.

Mozoloaren bidea
Ainara Azpiazu Aduriz “AXPI”
(Hernani, 1980)

Después de haber cursado Sociología, realizó trabajos de sociolingüística pero atendiendo a su afición a “jugar con imágenes”, estudió Bellas Artes en Bilbao. Profundizó en estos estudios durante el curso 2012-2013 en el cual realizó el máster ARS IN FABULA. MASTER IN ILLUSTRAZIONE PER L’EDITORIA en Macerata, Italia.

Realiza, sobre todo, tiras de cómics: *Hernaniko Kronika*, *Berria*, *GAUR8*, *Irrien Lagunak*, *H28* aunque también ha ilustrado varios libros: *Nahla*, (Ibaizabal, 2015) *Betaurrekoak Hozkailuan* (Ibaizabal, 2016), *Mozoloaren bidea* (Dobera Euskara Elkarte, 2016), *Gaua Anderea* (Ibaizabal, 2017), *Sekretuen mila zaporeak* (Ibaizabal, 2018) y *Nire amama ni bezalakoa da, ume bat* (Latopera, 2019). En 2017, recibió el premio Etxepare por su autoría del texto del album ilustrado, *Arraroa*. También es miembro del colectivo Tupust! Ha colaborado con una obra de nueve páginas en el cómic *Txalaparta* editado por la editorial del mismo nombre.

También ha realizado diversos trabajos de ilustración en folletos y carteles para departamentos de Igualdad y Euskera de distintos organismos públicos e imparte talleres de cómic en su propio local de Hernani.

Le gusta hacer murales y en 2018, como beneficiaria de la I. Beca Kale Arte otorgada por el Ayuntamiento de Hernani, pintó el mural situado detrás del frontón de Ezkiaga.

Los trabajos expuestos en Lugaritz son ilustraciones del libro *Mozoloaren bidea*. El cuento narra la historia de un viaje que realiza un personaje que se encuentra con distintas personas y se adentra en ricos paisajes. Este cuento es un muy conocido en la cultura de Armenia y pretende enseñar una lección.

Estas imágenes le han parecido adecuadas para esta exposición, porque sin conocer el cuento, tanto los paisajes como los personajes pueden servir de base para crear nuevas historias, así como fomentar y desarrollar la imaginación.